



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Proposamen bozkatuena izan da 2021eko aurrekontu parte-hartzaileetan **Udalak "Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa" egingo du**

"Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa" egitea izan da proposamenik bozkatuena 2021eko aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, hau da, uztailearen 26an bukatu zen fasean. Boto gehien lortu zituztenak hurrengo proposamenak izan ziren: Bidegorri sarea zabaltzea eta Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina egitea.

Aurrekontu parte-hartzaileetan aurreikusitako milioi bat euroko diru-partida banatuko da lehenengo ZAZPI projektuen artean:

- Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa (22.000€)
- Bidegorri sarea zabaltzea (300.000€)
- Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina (60.000€)
- Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Etxean (155.200€)
- Santa Anako haur parkea berritzea (48.000€)
- Txakurrentzako aisiarako eremuak (12.000€)
- Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMI (Norberaren Mugikortasunerako Ibilgailua) pribatuak kargatzeko guneekin (400.000€).

Datuak

Herritarrek hautatutako proposamenak honela sailkatzen dira, jasotako puntuen arabera:

ORDENA	PUNTUAK	PROPOSAMENA
1	3.674	Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrako baliabideen katalogoa.
2	3.504	Bidegorri sarea zabaltzea.
3	3.335	Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina.



Getxo

bizi ezazu

4	2.730	Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Etxean
5	2.711	Santa Anako haur parkea berritzea.
6	2.660	Txakurrentzako aisiarako eremuak.
7	2.590	Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMI (Norberaren Mugikortasunerako Ibilgailua) pribatuak kargatzeko guneekin.
8	2.520	Igogailua Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

Bigarren fase horretan, jasotako galdeketen kopurua 774koa izan zen; horietatik, 659 baliodunak eta 115 baliogabeak (hainbat arrazoiengatik). Beste urteetan ez bezala, galdeketa gehienak (449) online aurkeztu ziren, web gunearen edo posta elektronikoaren bitartez. 210 udal eraikin ezberdinetan eta kaleko karpetan jarritako buzoietan jaso ziren.

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fase honetan, proposamenak jasotzeko hiru postontzi jarri ziren Algortako, Areetako eta Bidezabalgo geltokietan. Halaber, boto-ontziak egon ziren Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Fadurako kiroldegian, Villamonteko Kultur Etxean eta RKEn; gainera, informatzeko karpak ere jarri ziren Algortako Geltokia plazan, Areetako Geltokia plazan eta parte hartzeko aukera eman zen udal webgunean erabilgarri zegoen inprimaki digitala betez, edota inprimakia helbide elektronikora bidaliz eskaneatutako eranskin gisa.

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.